



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

II. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Emakumearen irudia euskal haur
literatura modernoan. 1980ko
hamarkadako eta gaur egungo
egoera**

Eneko Fernandez
58-70 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.07>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



UDALBILTZA



Emakumearen irudia euskal haur literatura modernoan. 1980ko hamarkada eta gaur egun

Fernandez, Eneko

eneko@anderdeuna.eus

Laburpena

Haur eta gazte literaturak transmititzen dituen eredu femeninoak eta maskulinoak, ideologiarekin eta balioekin batera, umeengan eragin negatiboa izan dezake. Ikerketa lan honek, genero ikuspegitik sexismoa detektatzeko, euskal haur eta gazte literatura modernoaren 144 liburuen irakurketa analitikoa egin da emakumearen eta gizonaren irudiaren eboluzioa aztertzeko asmoz. Aurrerapenak egon diren arren, sexismoak presente egoten jarraitzen du.

Hitz gakoak: haur literatura, sexismoa, berdintasuna, emakumea

Abstract

Both feminine and masculine models that are transmitted through child and youth literature, together with the ideology and values, may exert a negative influence on children. The main objective of the present research was to detect sexism from a gender perspective. For this aim, an analytic reading of 144 child and youth modern literature books has been conducted in order to examine the evolution of the image of women and men. This analysis has shown that, despite some advances, sexism remains present on the modern literature.

Key words: child literature, sexism, equality, woman.

1. Sarrera eta motibazioa

“Zer irakurri, hura izan” esamolde hau izan liteke ikerketa lan honen akuilua; zer emakume eta gizon eredu eskaintzen die haur eta gazte literatura modernoak gure umeei, alegia, etorkizuneko belaunaldiei?

Lehen hezkuntzako irakaslea eta irakurle zalea naizen aldetik, jakin nahi nuen euskal umeek irakurtzen eta ikusten dituzten liburuetan zer-nolako emakumeak eta gizonak agertzen diren. Kontuan hartu behar da haur hauek informazioaren aurrean irakurle ahulenak direla; izan ere, beraien gaitasun kritikoa nahiko mugatua da eta txiki-txikitatik den-dena xurgatzen dute, esponja bat bezala. Horrexegatik, premiazkoztat jotzen dut, euskal letretan agertzen diren emakumeen eta gizonen ezaugarriak identifikatzea eta bide batez, sexismoa eta berdintasun eza adierazten dituzten egoerak salatzea. Izan ere, Reizabalek (2015) jasotzen duenez, pertsonari bere sexuaren arabera abantailak esleitzeko edo diskriminatuzko erabiltzen diren ohiturei dagokie sexismoa. Gainera, gizarteak gehien onartzen duen bidegabekeria da sexismoa (Simon, 2009).

Gizarte, kultura eta une historiko bakoitzean gizon eta emakumei esleitzen zaizkien funtzioak, balioak eta jokabideak emakumearentzat diskriminatzaileak izaten direnez, estereotipoen bidez sexismoa transmititzen dela baieztatu daiteke.

Batzuetan sexismoa begi-bistakoa den arren, maiz liburuen irudien eta letren barnean modu sotilagoan ager daiteke eta oharkabean pasatzen da irakurlearen adimenaren aurretik. Modu horretan, estereotipo tradizionalak (etxeko lanak eta zaintza familiarrak emakumei zuzendutako ekintzak, botere guneetan gizonak agertzea, kolore arrosa neskenzat izatea...) indarturik geratzen direlarik. Michelek (1987) baieztatzen duenez, liburuetakoa estereotipo sexistek nesken eta

emakumeen giza garapena (intelektuala, afektiboa...) oztopatzen dute.

Irakurketa beti izan da funtsezko gaia hezkuntzaren esparruan, eta gainera, sozializazio prozesuan parte hartzen duten bi eragile nagusiek, eskolek eta familiek, hainbat tresnen bitartez haurra laguntzen dute bide luze eta amaigabe horretan. Tresna horien artean haur eta gazte literatura nabarmentzen da. Gure gizartean haur eta gazte literaturak umeei munduaren ikuspegi bat eta ereduak eskaintzen dizkio eta bide batez, errealitatearen hurbilketa bat egiten die. Colomerren (1999) arabera, umeei irakasteko, jarreraren eta balioen eredu didaktikoak eskaintzeko eta hezkuntza arautuan hainbat gai lantzeko balio du haur literaturak. Halaber, munduaren errepresentazioa erakusten die eta sozializazioan lagunduko dien tresna bat izan daiteke.

Etxanizek (1996) esaten duenez, liburuetan ideologia beti dago presente eta hiru modutan aurkezten da: egilearen ikuspuntuaren bidez, berezko egoeren bidez eta ideologia pasiboaren bidez. Zenbait kasutan eta oharkabean bada ere, liburuen argitaletxeen, idazleen eta ilustratzaileen izaera eta pentsaera, aipatutako liburuen rol-sexu ezarpenen transmisioan ager daiteke. Eragile subjektibo posible honek, umeen genero identitatearen eraikuntzan eragina izan dezake.

Hortaz, agerian geratzen da liburuek hizkuntza literario baten bitartez ideologia transmititu dezaketela eta horrek haurrengan eragina handia izan dezakeenez, garrantzitsua da haur eta gazte literatura aztertzea.

Berdintasunari dagokionez, egoera sexistak eta estereotipoak etengabe transmititzea arazoa izan daiteke. Honako hau sarri gertatzen da haur eta gazteei zuzendutako liburuetan (Turin, 1995; Colomer, 1994; Etxaniz, 2004). Beraz, aztertuz, esan daiteke, estereotipoek sexismoa bultzatzen dutela eta ondorioz, sexismoa dagoen bitartean ez dela berdintasunik egongo.

Arestian aipatu den bezala, umeei ikusi edo irakurritakoa zeharka barneratzeko erraztasuna izaten dute, askotan, estereotipatutako ekintza, rol eta jarrera konkretuak barneratuz, esate baterako, hiru urteko ume bat gai da kolore arrosa neskena dela eta urdina, aldiz, mutilena dela esateko.

Kontuan izanik, XXI. mendeko hezkuntzaren oinarriko helburuetariko bat sexuen berdintasun aukera bermatua egotea dela, beharrezkoa da umeei hezteko erabiltzen den edozein baliabide kultural aztertzea eta jomugan jartzea. Ikerketa honi dagokionez, literaturak sozializazio prozesuan duen funtzioetariko bat eredu femenino eta maskulinoaren igorpena da (Barragán, 1989). Horrexegatik, hain zuzen ere, erabaki da euskal haur eta gazte literatura modernoan - 1980ko hamarkadan eta gaur egun (2009-2014)- genero ikuspegitik sexismoa detektatzeko emakumearen eta gizonaren irudiaren eboluzioa aztertzea. Alde batetik, emakume eta gizon horien ezaugarriak identifikatzeko eta bestetik, 1980ko hamarkadatik hona izan duten bilakaera antzemateko.

Hezkuntza sistemaren parte diren alderdi guztietan agertzen diren estereotipo sexistak aztertu behar dira hauek gainditzeko. Gai honi lotuta hainbat ikerketa egon diren arren, euskal letretan gabezia antzeman da, hau horrela, ikerketa hau egitea erabaki da.

Laburbilduz, esan daiteke bi galdera izan direla lan honen pizgarria: 1) Nolakoak dira euskal haur eta gazte literatura modernoak transmititzen dituen emakumeak eta gizonak? 2) Nolako bilakaera izan du emakumearen eta gizonaren irudiak 1980ko hamarkadatik gaur egunera?

Galdera hauek erantzuteko euskal haur eta gazte literatura modernoko 144 liburu irakurri eta aztertu dira. Eboluzioa antzeman ahal izateko, corpusa hiru taldetan banatu da: 1980ko hamarkadako 70 liburu (euskaraz idatziak eta itzulpenak aztertu dira), 2013an euskaraz argitaratutako 55 liburu (kasu honetan ez dago itzulpenik) eta azkenik, sarituak izan diren 19 liburu (Etxepare Saria, Mikel Zarate Saria, Euskadi Literatura Saria edota Lizardi Saria).

Modu honetan bi garai desberdintzen dira nabarmenki: bata, euskal haur eta gazte literatura modernoaren hastapenak eta bestea, gaur egungo egoera. Gainera, saridunak nahiko berriak izateaz gain, emakumeen irudiarenganako begirunea izango dutela uste da. Gainera, ezinezkoa da euskal haur eta gazte literaturako liburu guztiak aztertzea, lan honetan lagin adierazgarri bat aukeratuko da talde osoa irudikatuz (Scribano, 2007).

Gure liburuetakoa informazioa arakatzeko, genero-ikuspegian, estereotipoetan eta sinbologia sexistan (Turin, 1995) oinarritutako *genero analisirako fitxa* batez baliatu naiz. Tresna hau erabat lagungarria izan zait ilustrazioak interpretatzeko eta baita pertsonaien eta ekintzen azterketa sakona egiteko ere. Zehaztasunetan agertzen den informazioa ugaria eta garrantzitsua dela aitortu beharra dago.

2. Arloko egoera eta helburuak

Literatura kritikaren esparruan, pertsonaiaren azterketak hausnarketa teoriko eta metodologiko ugari eragin dituelarik eta kritika feministaren ardurei jarraikiz, ikerketa lan honetarako helburu nagusi bat zehaztu da. Kritika literaria feministak azaldu nahi ditu zeintzuk diren genero femeninoaren gutxiagotasuna ahalbidetzen edo bultzatzen dituzten egitura sinbolikoak, bukatu nahi du historian emakumearen ikusezintasunarekin eta erakutsi nahi du gaur egun duen papera (Humm, 1994).

Horretarako, teoria kritika literaria feministak, bere historian, gizezkoek eta emakumezkoek idatzitako testu literarioetan genero estereotipoak aztertzea eta emakumearen irudia arakatzeko gomendatu du. Izan ere, emakumei eta gizoni esleitzen zaizkien estereotipoak aztertzea ahalbidetzen du estereotipo horien eboluzioa, forma eta erabileraren maiztasuna ezagutzeko (Martinez, 2013).

Kezka hauek abianpuntutzat harturik, hainbat izan dira nazioartean eta Euskal Herrian egin diren ikerketak. Nazioartean aipagarria da 1996. urtean Frantzian, Italian eta Espainian 1994. urtean argitaratutako 736 album ilustratu ikertu zituztela eta lan horretan ateratako ondorioa argia honako hau izan zen: liburuetakoa irudiek, sarri, gizartearen egitura erabat estereotipatua transmititzen dute (Association européenne du côté des filles, 1998). Horregatik da hain garrantzitsua irudiak aztertzea; izan ere, marrakiz sinple baten atzean karga ideologiko handia topatu daiteke. Euskal Herrian, Xabier Etxanizek ere 1994. urtean euskaraz sortu ziren 38 liburu aztertu zituen eta ondorioztatu zuen liburuak estereotipo sexistak, kontzienteki edo oharkabean, sustatzen direla (Etxaniz, 1999). Hau guztia dela eta, euskal haur eta gazte literaturan estereotipoak transmititzen jarraitzen diren ikusteko, corpus handiagoa eta osoagoa eskatzen duen ikerketa egin beharra ikusi da.

Kasu honetan, kontuan izan behar da aztertua izan den corpusa euskal haur eta gazte literatura modernoaren barnean kokatzen den arren, bi garai ezberdinez ari garela, alde batetik, 1980ko hamarkada, euskal haur eta gazte literaturaren hasiera berantiarra, eta bestetik, gaur egungo literatura (2013ko urtea eta 2009tik 2015era liburu saridunak). Halaber, aurreikusten da sarien bitartez nolabaiteko prestigioa duten liburuak irudi parekideagoa eskainiko dutela.

Beraz, lan honen helburu nagusia euskal haur eta gazte literatura modernoak transmititzen duen emakumearen eta gizonaren irudiaren eboluzioa aztertzea da: 1980ko hamarkadan eta gaur egun (2009-2015).

Dena den, helburu nagusi horretara ailegatzeko bestelako helburu batzuk bete behar dira:

- 1) 1980ko hamarkadako eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan emakumeen eta gizonen kopuruak parekidetasunerantz eboluzionatu duen zehaztea.
- 2) 1980ko hamarkadan eta gaur egungo haur eta gazte literaturan sexismoaren ezaugarriak eta islak aurkitzea: ezaugarri fisikoak, aktibotasuna eta pasibotasuna, etxeko lanen banaketa eta kolore urdinaren eta arrosaren presentzia aztertzea.

3. Ikerketaren muina

Ikerketa lan honen muina, lehenik eta behin, 1980ko hamarkadako eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan emakumeen eta gizonen kopuruak parekidetasunerantz eboluzionatu duen zehaztea da. Horretarako, 1980ko hamarkadako, 2013an argitaratutako eta sarituak izan diren liburuen protagonista nagusiaren sexua aztertu da. Kritika feministak proposatzen duenez emakumearen ikusezintasunarekin amaitzea, garrantzitsua da ipuinetako pertsonaiarik inportanteenaren sexua arakatzea. Horrela soilik jakingo baita emakumeek eta gizonen protagonista nagusiaren rolean zer-nolako presentzia duten.

1. taula. Protagonista nagusiaren sexua (1980, 2013 eta liburu sarituak).

	Liburua			Guztira
	1980ko hamarkadako Maiztasuna (%)	2013.urtean argitaratutakoa Maiztasuna (%)	Liburu sariduna Maiztasuna (%)	Maiztasuna (%)
Protagonista_ Emakumea/neska nagusia	11 (% 15.7)	18 (% 32.7)	11 (% 57.9)	40 (% 27.8)
Gizona/mutila	41 (% 58.6)	19 (% 34.5)	7 (% 36.8)	67 (% 46.5)
Guztira	70 (% 100.0)	55 (% 100.0)	19 (% 100.0)	% 100.0

Datuen arabera, ikus daiteke liburua gero eta berriagoa eta prestigiotsuagoa (sartuak) den heinean, emakumearen presentzia handiagoa dela eta gainera, azken hauetan, mutilen eta nesken presentzia orekatuagoa dela.

1980ko hamarkadako liburuetan *neska/emakume* protagonista nagusiaren kopurua nahiko baxua (% 15.7) den bitartean, 2013an gora egiten du nabarmen, kopurua bikoiztuz; urte honetako liburuen % 32.7an *neska/emakumea* protagonista nagusia da, mutil/gizonen oso parekoa izanik. Liburu saridunetan, aldiz, *neska/emakumezko* protagonista nagusia % 57.9koa da. Hortaz, 1980ko hamarkadako egoera desorekatua irauli egiten dela esan daiteke.

Dena den, kuantitatiboki aztertuta, protagonista nagusian *neska/emakumearen* kopuruak gora egiteak ez du berdintasunik bermatzen, ezta eredu berrien transmisioa ziurtatzen ere. Gainera, kritika feministari kasu eginez, testu literarioetan genero estereotipoak aztertu behar dira eta bide batez, emakumearen irudiaren ezaugarriak arakatu. Horrexegatik, beste arlo batzuetako emaitzak aztertu behar dira. Kasu honetan, emakumezko eta gizonetzko pertsonaien deskripzioetan agertu diren ezaugarri estereotipatuak kontuan hartu dira. Aldagai hauek egileek emakumeei eta gizonen buruzko zer irudi ematen duten aztertzea ahalbidetzen digute.

Hurrengo taulan, hainbat adjektiboen presentzia aztertu da, hala nola, mutil eta neska indartsuaren presentzia, ahuldadea, itsusitasuna eta edertasuna. Egileek egin dituzten deskribapenetan edota pertsonaien zenbait ekintzen eta elkarrizketen bitartez sexu bakoitzari identifikatu zaizkien ezaugarri fisikoak ageri dira.

2. taula Ezaugarri fisikoen presentzia (indarra, ahuldadea, edertasuna eta itsusitasuna).

Ezaugarriak	Liburua		
	1980ko hamarkadakoa	2013. urtean argitaratutakoa	Liburu sariduna
	Maiztasuna (%)	Maiztasuna (%)	Maiztasuna (%)
Neska_indartsua	0 (% 0)	4 (% 7)	0 (% 0)
Mutil_indartsua	21 (% 30)	11 (% 21)	4 (% 21)
Neska_ahula	2 (% 2)	3 (% 5)	1 (% 5)
Mutil_ahula	0 (% 0)	0 (% 0)	0 (% 0)
Neska_ederra	22 (% 31)	20 (% 38)	5 (% 26)
Mutil_ederra	3 (% 4)	9 (% 17)	0 (% 0)
Neska_itsusia	9 (% 12)	4 (% 7)	0 (% 0)
Mutil_itsusia	3 (% 4)	0 (% 0)	1 (% 5)

Aurreko taulan jasotzen diren datuen artean 1980ko hamarkadako liburuetan eta liburu saridunetan ez dela *neska indartsurik* topatzen nabarmendu daiteke. Beste alde batetik, 2013ko liburuetan *neska indartsuaren* presentzia txikia antzeman daiteke (% /7).

1980ko hamarkadan nagusi dira ezaugarri fisikoari esleitzen zaizkion estereotipoak: *mutil indartsua* (% 30) eta *neska ederra* (% 31). Gaur egun ere bi estereotipo hauek nagusi izaten jarraitzen dute eta gehien errepikatzen direnak dira; 2013. urteko liburuen % 21ean *mutil indartsua* topa daiteke eta *neska ederra* liburuen % 38an. Joera hau liburu saridunetan ere errepikatzen dela ikusten da; *mutil indartsua* liburuen % 21ean agertzen da eta *neska ederra* liburuen % 26an. Beraz, kasu honetan egileek genero-estereotipo hauek oraindik sustatzen dituztela esan daiteke. Halaber, nabarmentzekoa da aztertutako hiru multzoetan ez dela *mutil ahulik* antzeman.

Horregatik, esan daiteke neska ederraren eta mutil indartsuaren estereotipoak 1980ko hamarkadan eta gaur egun nagusi direla euskal letretan eta indarra mutilekin eta edertasuna neskekin lotuz, ez dela sexismoarekin amaitzen.

Ezaugarri fisikoak aztertu ondoren, nortasunarekin zerikusia duten bi estereotipo aztertu dira: alde batetik, tradizionalki gizonari atxikitu zaion aktibotasuna eta bestetik, emakumeari esleitu zaion pasibotasuna (Turin, 1995).

Hurrengo taulan, corpusaren multzo bakoitzean sexu bakoitzari dagokion aktibotasuna ikus daiteke, hau da, liburuetan mutil eta neska aktiboak agertzen diren edo ez. Horretarako, kontuan hartu dira pertsonaien jarduerak eta rolak.

3. taula. Euskal haur eta gazte literaturan aktibotasunaren presentzia.


Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadako	Ez da agertzen	14	% 20.0	47	% 67.1
	Agertzen da	56	% 80.0	23	% 32.9
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013.urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	19	% 34.5	32	% 58.2
	Agertzen da	32	% 58.2	20	% 36.4
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	10	% 52.6	7	% 36.8
	Agertzen da	9	% 47.4	12	% 63.2
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Aktibotasunari dagokionez, nesken kasuan eboluzioa antzeman daiteke; gero eta *neska aktibo* gehiago ageri baitira euskal haur eta gazte literatura modernoan; 1980ko hamarkadako liburuetan *neska aktiboaren* presentzia % 32.9koa bada, 2013an % 36.4koa da eta liburu saridunetan, aldiz, *neska aktiboaren* presentzia asko igotzen da, liburuen % 63.2ra ailegatzen delarik.

Mutilen kasuan, aldiz, alderantzizko prozesua antzematen da; izan ere, 1980ko hamarkadako liburuen % 80an agertzen da *mutil aktiboa*, 2013an presentzia hori liburuen % 58.2ra jaisten da eta liburu saridunen erdian ere ez da ageri *mutil aktiborik* (% 47.4).

Ondorengo irudian ezaugarri honetan parekidetasunerantz dagoen joera baikor hau era argiago batean ikus daiteke.

1. irudia. Pertsonaien aktibotasunak duen presentzia



1980ko hamarkadako desoreka 2013an asko murrizten da eta gainera, liburu saridunetan neska aktibo gehiago identifikatu dira. Beraz, 2013ko datuek, baina bereziki liburu saridunetako datuek, adierazten dute urte hauetan ezaugarri honek berdintasunerantz eboluzionatu egin duela 1980ko hamarkadan ageri zen sexismoa gutxituz.

Hurrengo taulan, ordea, aktibotasunaren antonimoa den pasibotasunaren presentziaren datuak aurkeztuko dira.

4. taula. Euskal haur eta gazte literaturan pasibotasunaren presentzia.

		MUTILAK		NESKAK	
Liburua		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadako	Ez da agertzen	62	% 88.6	37	% 52.9
	Agertzen da	8	% 11.4	33	% 47.1
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013.urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	45	% 81.8	27	% 49.1
	Agertzen da	6	% 10.9	25	% 45.5
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	18	% 94.7	15	% 78.9
	Agertzen da	1	% 5.3	4	% 21.1
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0


Oro har, lortutako datuek erakusten dute liburu saridunetan *neska pasiboaren* presentzia nabarmen murriztu dela; 1980ko hamarkadan neska pasiboa liburuen % 47.1ean eta 2013an

liburuen % 45.5ean agertzen den heinean, liburu saridunetan % 21.1era jaitsi egiten da.

Bestalde, aztertutako hiru multzoetan *mutil pasiboaren* presentzia oso txikia da; 1980ko hamarkadako liburuen % 11.4an, 2013.urteko liburuen % 10.9an eta liburu saridunen % 5.3an identifikatu da.

Hurrengo irudian liburu saridunetan neska pasiboaren presentziak duen beherakada era argiago batean ikus daiteke.

2. irudia. Pertsonaien pasibotasunak duen presentzia



Goiko irudiak erakusten dugu 1980ko hamarkadan eta 2013an argitaratutako liburuetan pasibotasuna neskei atxikitutako ezaugarria dela, baina arestian aipatu bezala, liburu saridunetan egoera askoz parekideagoa da.

Beraz, neska eta mutil pasiboaren presentzia jaitsi egin dela ikus daitekeen arren, hiru multzoetan *mutil pasiboaren* presentzia txikiagoa da *neska pasiboaren* presentzia baino. Hala ere, irudian ikus daitekeen joera on honek oraindik ez du berdintasunezko egoera bat erakusten.

Hurrengo aldagaia literatura feministak askotan landu duen etxeko lanen banaketa da. Tradizionalki, emakumeei sozialki esleitu zaie etxeko lanen banaketa. Hortaz, garrantzitsua da aztertzea liburuek etxeko lanen banaketa parekidea eskaintzen duten ikustea. Datuak lortzeko kontuan hartu dira liburuetako irudiak eta pertsonaien jarduerak.


Hurrengo taulako datuak lortzeko soilik kontuan hartu dira etxeko lanak bakarrik agertzen dituzten liburuak, alegia, ehunekoak lortzeko kanpoan utzi dira etxeko lanak agertzen ez dituzten liburuak.

5. taula. Etxeko lanak bakarrik agertzen dituzten liburuak.

	Emakumeak	Gizonak
1980ko hamarkada	% 98	% 23
2013. urtea	% 83	% 42
Liburu sariduna	% 100	% 36.4

Goiko taulan ikus daitekeenez, etxeko lanen ardura nagusiki emakumearena da eta oraindik eginkizun honetan ez da egoera parekiderik identifikatu. Izan ere, etxeko lanak ageri dituzten liburu gehienetan emakumeren bat ageri da ardura hori betetzen eta gizona, ordea, ez da liburuen erdira ere ailegatzten. Daturik baikorrena 2013. urteko liburuetan ikus daiteke, non emakumeak ekintza hauek burutzen liburuen % 83an ageri diren eta gizonak liburuen % 42an. Hurrengo grafikoan datu hauen joera era argigarriago batean ikus dezakegu.

3. irudia. Etxeko lanen presentziaren bilakaera



Irudian ikus daitekeenez, 2013. urteko joera ona, ez da liburu saridunetan islatzen. Aldagai honetan aldaketa oso oso poliki ematen ari da eta horrexegatik ez da berdintasunik ikusten. Hau guztia dela eta, euskal haur eta gazte literatura modernoan *etxeko lanen* banaketan ez da eboluziorik antzeman eta egoera ez parekide honetan jokabide sexista begi-bistakoa da.

Bukatzeko, feministek askotan azpimarratu dute berdintasuna lortzeko koloreen erabilera estereotipatua gainditu behar dela. Horrexegatik, ikerketa honetan kolore arrosaren eta urdinaren datuak lortzeko pertsonaien arropetan erreparatu da.

Hurrengo tauletan eta grafikoetan sexu bakoitzean kolore urdinaren eta arrosaren presentzia aztertuko da. Izan ere, kolore arrosa “nesken” kolorea dela eta urdina “mutilen” kolorea dela esan izan ohi da. Horregatik, euskal haur eta gazte literatura modernoan topiko hauekin apurtzen den edo ez ikusiko da. Lehenengo taula honetan kolore urdina bakarrik agertzen dituzten liburuak kontuan hartu dira.


6. taula. Kolore urdinak duen presentzia.

	Emakumeak	Gizonak
1980ko hamarkada	% 23	% 92.3
2013. urtea	% 50	% 75
Liburu sariduna	% 87.5	% 50

1980ko hamarkadan kolore urdina agertzen dituzten liburu gehienetan gizonari atxikitzen zaie (%)

92.3), kolore urdina jantzen duen emakumea, ordea, liburu hauen ia laurdenean agertzen da (% 23). 2013an, kolore urdina agertzen dituzten liburuen hiru laurdenetan (% 75) gizona ageri da urdinez eta emakumea liburuen erdian (% 50). Liburu saridunetan, aldiz, kolore urdina agertzen denean, gehiagotan ageri da emakumean (% 87.5) gizonetan baino (% 50). Hurrengo grafikoa datu hauek nola gurutzatzen diren ikus daiteke.

4. irudia. Kolore urdinaren presentziaren bilakaera



Azterketa honek erakusten digu 1980ko hamarkadan kolore urdinaren erabileran dagoen desoreka gainditu dela. Halaber, 2013an antzeman den joera baikorra liburu saridunetan baieztatu egiten da.

Orduan, esan daiteke kolore urdinaren erabilerak eboluzionatu egin duela. Izan ere, nesketan gero eta gehiagotan ageri da kolore hau eta gainera, liburu saridunetan presentzia handiago du kolore honek nesketan mutiletan baino. Kolore urdinaren erabilerari dagokionez, ezin daiteke esan sexismoa dagoenik.


Hurrengo taulan kolore arrosaren erabilerak zer-nolako presentzia duen ikus daiteke. Ehunekoak aurkezteko orduan ere bakarrik kontuan hartu dira kolore arrosa agertzen dituzten liburuak.

7. taula. Kolore arrosak duen presentzia.

	Emakumeak	Gizonak
1980ko hamarkada	% 100	% 12.5
2013. urtea	% 72.8	% 54.5
Liburu sariduna	% 100	% 10

1980ko hamarkadako liburuetan eta liburu saridunetan kolore arrosa nagusiki emakumeekin loturik agertzen da, izan ere, bi multzo hauetan oso gizon gutxi topatu daitezke arrosa erabiltzen. Bestalde, azpimarragarria da 2013ko liburuen erdian baino gehiagotan gizonen bat ageri dela arrosa kolorez jantzirik (% 54.5). Hortaz, urte honetan egoera askoz parekideagoa da. Hurrengo grafikoa joera hauek era argiago batean ikus daitezke.

5. irudia. Kolore arrosaren presentziaren bilakaera



Irudian ikus daitekeenez eta arestian aipatuenez, kolore arrosaren agerpenari dagokionez, 1980ko hamarkadako egoera eta liburu saridunetako nahiko antzekoa da eta 2013. urtekoa, aldiz, nahiko parekidea da, hala ere, hiru multzoetan kolore arrosak presentzia handiagoa du emakumeetan gizonetan baino.

Ondorioz, bi kolore hauetan agertu diren datuek adierazten dute neskak urdinera hurbildu diren bitartean mutilek arrosatik urrun jarraitzen dutela, alegia, urdina neskekin gehiago erlazionatzen dela kolore arrosa mutilekin baino, eta honek iradoki lezake ezaugarri honi dagokionez eta parekidetasunaren izenean, neskak “mutilen” balioak bereganatzen ari direla eta ez alderantziz.

Ondorioak

Sexismoarekin amaitzeko eta ondorioz berdintasunerako bidea egiten jarraitzeko, erabat garrantzitsua da kontsumitzen ditugun produktu kulturalak aztertzea. Orain, ikerketa enpirikoan azalduko emaitzen ondorioak aurkeztuko dira.

Orokorrean, esan daiteke, aurrerapausoak egon diren arren, euskal haur eta gazte literatura modernoak ez duela oraindik irudi parekiderik eskaintzen. Beraz, ondorio gazi-gozaok egon direla baieztatu daiteke. Izan ere, gaur egungo liburuak 1980ko hamarkadakoekin baino parekideagoak dira, baina oraindik nahikoa ez denez parekidetasunerantz lan egiten jarraitu beharra dago.

Alde batetik, ikerketa enpirikoaren datuek erakutsi duten alde gozoa aipatuko da eta jarraian ondorio gaziak.

Ondorio gozoen artean ikusi da gaur egungo liburuetan emakumearen presentzia handiagoa dela eta horren ondorioz mutilen eta nesken presentzia orekatuagoa dela. Hortaz, datuek erakusten digute presentziari dagokionez, eboluzioa egon dela eta 1980ko hamarkadan emakumeak zuen presentzia urria eta egoera desorekatua irauli egin dela.

Baita ere oso positibotzat jotzen da emakume aktiboaren presentzia gero eta handiagoa izatea eta emakume pasiboaren presentzia gero eta urriagoa izatea, hau gainera nabarmenagoa da sarrituak izan diren liburuetan. Hortaz, pentsa genezake epaimahaiko kideek kontuan hartzen dutela emakumeen presentzia eta hauen jarrera aktiboa saria merezi duen liburua zein den erabakitzeko.

Aktibotasunak eta pasibotasunak parekidetasunerantz eboluzionatu egin duenez, euskal letretan zegoen bereizketa sexista hori gutxitu egin dela baieztatu daiteke.

Datuetan ikusi dugunez, orokorrean, 1980ko hamarkadan koloreen erabilera sexista nabarmenagoa da. Kolore urdinaren erabilerak eboluzionatu egin du. Izan ere, nesketan urdina gero eta gehiagotan ageri da eta gainera, liburu saridunetan kolore honek presentzia handiago du nesketan mutiletan baino. Horrexegatik, kolore urdinaren erabilerari dagokionez, ezin dugu esan sexismoa dagoenik. Beste alde batetik, kolore arrosaren presentzia nesketan mutiletan baino handiagoa denez, eta datu hau liburu saridunetan areagotzen dela ikusirik, kolore honen erabilera sexistarekin oraindik ez dela bukatu baieztatu dezakegu. Bi kolore hauen erabilera parekidea eta ez-estereotipatua izateko, neskek kolore urdinean esparrua hartu duten bezalaxe, mutilek kolore arrosaren erabilera ere areagotu beharko lukete.

Datu gaziei dagokienez, esan dezakegu, neska ederraren eta mutil indartsuaren estereotipoak 1980ko hamarkadan eta gaur egun oraindik ere nagusi direla euskal letretan, izan ere, mutil indartsuak eta neska ederrak dira gehien errepikatzen diren ezaugarriak. Hortaz, egileek oraindik genero-estereotipo hauek sustatzen dituzte eta indarra mutilekin eta edertasuna neskekin lotuz ez da sexismoarekin bukatzen. Egoera honek ez dio berdintasunari inolako mesederik egiten.

Gainera, etxeko lanen esparruan, espero zitekeenaren kontrara, euskal haur eta gazte literatura modernoan etxeko lanen banaketan ez da eboluziorik antzeman eta egoera ez-parekidea mantentzen da. Gainera, liburu saridunetan eta 1980ko hamarkadako corpuseko datuak nahiko antzekoak dira; etxeko lanak nagusiki emakumeen ardura dira.

Laburbilduz, aurrerapenak egon diren arren, sexismoak eta ondorioz, berdintasun ezak presente egoten jarraitzen du eta honek ez du laguntzen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sozialekin amaitzeko. Beraz, argitaletxei eta egileei deia luzatzen diet berdintasunerantz lanean jarraitzeko eta hankamotz geratu diren arlo horiek gainditzeko, esate baterako, etxeko lanen banaketa, kolore arrosaren erabileran eta indarraren eta edertasunaren presentzian. Modu horretan, soilik, irakurleek topatuko dituztelako eredu anitzak, ez estereotipatuak eta parekideak.

Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Bukatzeko, ikerketa lan honek etorkizunerako beste ikerketa ildo batzuk zabaltzen dituela uste dut. Horien artean, nire uste apalean, hauek izango liriateke interesgarrienak eta garrantzitsuenak, hona hemen nik proposatzen ditudanak: lehenengoa, liburu etako esparru eta ezaugarri gehiago aztertzea eta pertsonaia horien irudian atzeman diren berrikuntzak aztertzea: ezaugarri fisikoak, ezaugarri psikologikoak, espazioak, ardurak, familia-ereduak, lanbideak, sinboloak eta aisialdia... Bigarrena, liburu saridun guztiak aztertzea, izan ere, ikerketa horrek aukera emango liguke liburu irabazleen ezaugarrien erradiografia egiteko eta baieztatzeko edo ezeztatzeko epaimahaikoek sexismoan eta berdintasunean arreta ipintzen duten edo ez esateko. Beste ikerketa posible bat izango litzateke liburu sexistak eta ez-sexistak alderatzea berdintasunak eta ezberdintasunak antzemateko. Baita ere interesgarria izango litzateke aztertzea ea liburuaren egilearen sexuak emakumearen eta gizonaren irudian eragina duen ikertzea. Azkenik, modu kualitatibo batean idazleekin elkarriketa sakonak egitea idazleen ideologia feministak liburu etako emakumearen irudian nolako eragina duen ikusteko. Horrela egileen feminismoak zenbaterainoko jarrera kritikoa izatea ahalbidetzen duen frogatu ahalko genukeelako. Espero da etorkizunean zabalduko diren bide hauek norbaitengan bide berri hauek jorrazteko gogoia piztea.

Erreferentziak

- Association européenne du côté des filles, (1998). *¿Qué modelos para las niñas? Una investigación sobre los libros ilustrados*. Paris: Du Côté des Filles.
- Barragán, F. (1989). Conocimiento social, sexismo y literatura infantil. *Cuadernos de literatura infantil y juvenil*, 11, 8-12.
- Colomer, T. (1994). A favor de las niñas. El sexismo en la literatura infantil. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 57, 7-24.
- Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madril: Síntesis.
- Etxaniz, X. (1996). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: UPV/EHU.
- Etxaniz, X. (1999). Líneas de investigación en literatura infantil y juvenil. *Revista de Psicodidáctica*, 185(8), 5-16.
- Etxaniz, X. (2004). La ideología en la literatura infantil y juvenil. *Cauce. Revista de Filología y su Didáctica*, 27, 83-96.
- Humm, M. (1994). *A reader's guide to contemporary feminist literary criticism*. New York: Harvester Wheatsheaf.
- Martinez, J. (2013). *Emakumeen kontrako biolentzia sinbolikoa euskal haur ipuinetan. Inguruak: Soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria*, 55, 1328-1353.
- Michel, A. (1987). *Fuera moldes*. Barcelona: Editorial La Sal-UNESCO.
- Reizabal, L. (2015). *Genero-berdintasunean hezteko gida*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Scribano, A. O. (2007). *El proceso de investigación social cualitativo*. Buenos Aires: Prometeo Libros.
- Turín, A. (1995). *Los cuentos siguen contando. Algunas reflexiones sobre los estereotipos*. Madril: Horas y Horas.